



ALFONSO RIOS
CCOO EUSKADIKO EUSKARA
ARDURADUNA

KOHESIORAKO HIZKUNTZA POLITIKA, ETORKINEN INTEGRAZIOA ERE BULTZATUKO DUENA

ERAIKI NAHI DUGUN GIZARTEA. GUZTION ERANTZUKIZUNA

Euskara eta gaztelania Euskadiko herritar guztien ondare dira. Ezin da bi hizkuntzetako bat ere arrotz moduan hartu. Biak ditugu hizkuntza ofizialak Euskadin, eta biak erabiltzen dira populazioaren talde zabaletan. Egia da eremu gehiagotan gaztelania dela ezarpen eta erabilera handien duena, baina eremu geografiko batzuetan, euskararen erabilera da gailentzen dena.

Jakin ondo dakigu, bizikidetzarako gai esanguratsuak ari garela. Pertso-
nen arteko komunikazio gaiak dira, beraz, hizkuntza komunitateen arteko liska-
rrak saihesteko asmoz, elebitasuna indartzea beharrezkoa dela uste dugu. Ildo
horretan, euskararekiko laguntza da landu behar dena, egunerokotasunean
gaztelaniarekiko berdintasun handiagoa lor dezan.

Elebitasunari egin dakioken mesederik handiena herritarrek baztertuta
ez sentitzea da, hizkuntza bata edo bestea ez jakin edo ez erabiltzeagatik, hau
da, pertsona guztiek beren hizkuntza eskubideak uneoro errespetatuta sentitu
behar dituzte. Pertsona guztien hizkuntza-eskubideak errespetatzeak, gizarte
kohesionatu bat eraikitzen laguntzeaz gain, gizarte-haustura desegiten ere
laguntzen du. Hortxe horren garrantzia.

Ildo horretan, administrazio publikoak, zerbitzu publikoetan herritarre-
kiko duen arreta bi hizkuntzetako edozeinetan emateko aukera eman behar
du. Administrazio publikoan euskaraz ematen den arreta gero eta finkatuago

dago eta aurrerapausoak ematen ari dira % 100ean bermatuta egon dadin. Enpresa pribatuan, ordea, ez da behar beste egin bi hizkuntzen arteko bizikidetzaren alde, ez eta, adibidez, bezero edo erabiltzaileekiko harremanak euskaraz izan daitezen.

Beharrezkoa da jendeak hautematea zubiak dituela zeharkatzeko, eta ez harresiak gainditzeko. Hori baita euskararen hedadura bermatuko duena, benetako eta eguneroko hedapena, azterketak edo probak gainditzean baka-rrik oinarritu gabe (eta gero eskatzen den esparruetan ez erabili). Euskaraz ez dakiten pertsonak hizkuntza ikastera animatzeko senti dezaketen pizgarria gai estrategikoa da, eta esan dezakegu gauza ordezkazekin eta lehen mailako beharra dela. Hizkuntza-bizikidetzak arriskuan jar dezakegu dakitenek ez erabiltzeagatik, baina are arriskutsuagoa izango da hizkuntza ezagutzen ez dutenek ikasi nahi ez izatea.

Ezin dugu alde batera utzi gure gizartea etorkinei esker hazten ari dela. Hazi ez ezik, aberastu ere egiten da haiei esker. Alderdi kulturaletan aberasten da, hasiera batean berritasun moduan eta ondoren kolektiboan sartu eta parte hartzeagatik. Hori da gizarte bati gerta dakioken gauzarik onenetako bat, kultur aniztasunean aberasteak elkartasun balioetan aberastea sustatzen duelako.

Etorkinak ere gure gizartearen parte dira eta errespetatu beharreko hizkuntza-eskubideak dituzte. Beraiek ere haustura sozialik gabeko gizarte batean bizi nahi dute, beraz, gizartea kohesionatzen lagunduko dute.

Duela gutxi, Eduardo J. Ruiz Vieytez Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanok, populismo xenofoboaren arazoak eta arriskuak aztertzen zituen prentsa-artikulu batean gogorarazi zuen *"aniztasuna, gizarte aske baten ezaugarri osasuntsua da"*. Hobe dugu, gure etorkizunerako, hitz horiek oso gogoan izatea, oroimenean ahaztu eta ezkutuan gorde gabe.

CCOOn egoeraren diagnostikoa egin dugu eta ondorioztatu dugun egoeran, euskararen sustapena oztopatzen duten zenbait elementu hauteman ditugu, euskarak gure gizartean duen presentzia nolabait distorsionatzen dutenak. Proposamen batzuk egin ditugu, hauteman ditugun arazoei irteera emango diotelakoan.


Horren guztiaren inguruko dokumentua (<http://ccoo.eus/db745719d9c0f80095913ff81e33a070000056.pdf>) Eusko Legebiltzarreko taldeei aurkeztu diegu eta egiten ari diren balorazioa positiboa da.

ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO ETA KLASE-ARRAKALARI AURRE EGITEKO TRESNA


Euskara enplegagarritasun-faktore da, une honetan lan-merkatuan baldintza hobeetan sartzeko aukera ematen duelako. Hala da administrazio publikoan, eta gure ustetan, enpresa pribatuan ere hori gertatzen ari da. Lanpostu jakin batzuetan aritzeko euskaraz jakitea baldintza da gaur egun, batez ere, publikoarekiko arreta duten lanpostuetan.

Euskararen ezagutza goranzko bidean doa, argi eta garbi. Une honetan, Euskadiko biztanleen erdiak baino gehiagok du euskararen ezagutzaren bat eta euskaraz aise mintzatzen direnek gorantz jarraitzen dute.

Euskaldun pasibo deritzegunen kopurua adierazgarria da; halakoek euskarazko elkarrizketa bat uler dezakete eta euskararen erabilera zabaltzen laguntzeko talde esanguratsua da, euskararen inguruko ezagutzaren bat duten



hermes



hermes

neurrian erabiltzen hasteko motibazioa izan baitezakete. Baina horretarako ikasketa epe bat eta beste hainbat baliabide beharko dute.

Euskararen ezagutza edo ikastearen inguruko arazo bat klase arrakalan jartzen da: Lanbideren estatistikek diotenez, langabezian dauden pertsonen % 90ek ez daki euskaraz.

Beraz, errealitate horren gainean hausnartzea beharrezkoa da, sortu den arrakala hori betikotzen ari delako eta sortu nahi dugun gizarte kohesiona-tua lortzeko oztopo izan daitekeelako. Jende askoren desabantaila eragiten du egoera horrek, ezin dutelako euskara enplegarritasun faktore moduan era-bili, beste pertsona batzuen aldean, abiapuntu beretik hasten badira ere.

Gogorarazi behar dugu etorkinak –gure gizartean sartzen diren une jakin horretan, behintzat– zailtasun handiekin iristen direla hizkuntza ofiziale-tako bat edo biak ez jakiteak sortzen dizkenez gain, beste zailtasun batzuk ere badituztelako. Ezin dugu onartu, beraz, klase arrakala are handiagoa izatea hizkuntza ez ezagutzeagatik, eta hori leuntzeko neurriak hartzea beharrezkoa da.

CCOOn ustetan, beharrezkoa da euskara ikastearen doakotasuna lantzea. Erarik errazena ikasturteko matrikula ordaintzea litzateke, gehienez ere, 72,36 euroko tasa ezarrita (2019 urterako hizkuntza eskolako tasa ofiziala) eta ez euskaltegian ikasturteak izan dezakeen 700 euro baino gehiagoko kos-tua. 72,36 euro horiek ikasturtea gainditu ostean bueltatuko lirateke, ziurtagiria eskuratzean. Eredu horri beharrezkoa deritzogu C1 maila eskuratu arte, hori delako administrazio publikoan eta sektore pribatuan oso hedatuta dagoen hizkuntza eskakizuna.

Esan dugun moduan, beharrezkoa deritzogu enpresa pribatuan ere aurrerapausoak emateari euskararen hedapenari dagokionean, bertan ere euskararen ezagutza enplegarritasun faktore delako, ez bakarrik administrazio publikoan. Matrikularen kostua gakoa da euskara ikasi edo hobetu nahi duten pertsonentzat, baita horrek eskatzen duen denbora ere; horregatik, urteko libe-razio programa ezinbestekoa da. Beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak libera-zio programa hori finantzatzea, norbanakoen prestakuntza baimenen antzeko finantzazio sistema sortzeko diru partidak bideratuz.

Argi eta garbi, herritar guztiei zuzendutako neurriak dira, baina, etorki-nek ere jasoko dute horien onura. CCOOn ustetan, euskara ikasi eta ezagu-tza hobetzeko beharrezko neurriak dira. Bidezko hizkuntza politika sustatzen lagunduko dute eta hizkuntzaren ezagutzan hutsetik hasten direnek ere jasoko dutelako onura, neurri handi batean.

EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEA: MALGUTZEKO BEHARREZKO URRATSAK

Hainbat arrazoiengatik, euskararen ezagutza maila egiaztatu behar duten pertsona askok frustrazio handia izaten dute gramatika eskakizunak direla eta, azterketa ezin gainditurik aurkitzen dutelako euren burua askotan. Sarri, euskaldun zaharrei gertatzen zaie, euskaraz modu arinean hitz egiteko gai diren arren, aipatutako azterketa gainditzeko adinako ezagutza gramatikalik ez dutelako.

CCOorentzat, hori da egiaztapen-sisteman identifikatu dugun gehie-gikerietako bat. Eta kezkaragiena da sortzen den frustrazio horrek ez duela laguntzen gizarteko sektore jakin batzuetan euskararen erabilera sustatzen.

Hori esanda, uste dugu ez dela batere eraginkorra gramatika-azterketa bat ez gainditzeagatik, hizkuntza-eskakizun jakin bat egiaztatzen ez duena, euskaraz adierazi eta elkarrizketa arina izateko gai izanda, enplegu publikoan ezin sartzea.

Ez da ulergarria, eta ez du hizkuntza bultzatzen laguntzen, egiaztapen sistemak euskararen erabilerak berak baino garrantzia handiagoa hartzea; horregatik uste dugu beharrezkoa dela euskararen ezagutza egiaztatzeko sistema hori ikuspegi komunikatiboago batetik lantzea, eta ez hain formaletik.

Ikuspegi filologiko eta gramatiko-formalista sakonetan oinarritutako edozein hizkuntzaren ezagutza egiaztatzea arazo bat da termino horietan gainditu beharreko azterketa bati aurre egin behar dionarentzat.

Hala ere, baikorrak gara egoerarekin, azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla ikusten dugulako. Gaur egun, unibertsitateko ikasketen zati handi bat euskaraz eginda C1 maila egiaztatu daiteke, Batxilergoan B2 maila eta DBHrekin B1 maila.

Baina, bestalde, kezka handia sortu digu inboluzionista deritzegun proposamenak ere entzun izanak ikasketa ofizialak egiteagatik euskararen ezagutza egiaztatzeko sistema honen inguruan. Proposamen horiek, gainera, ez dute bakarrik baliozkotze sistema horrekin amaitu nahi izan, hizkuntza-errealidaren azterketa-sistema ezarri nahi izan dute, horrek derrigorrezko bigarren hezkuntza egiaztatzeko titulua lortzea ere baldintza lezakeela.

Arazo horri heltzea beharrezkoa da, eta azterketa-sistema berri bat eratu, maila bakoitza egiaztatu ahal izateko. Komunikazio-ikuspegia indartu behar da, ikuspegi eta eskakizun formal-gramatikalari garrantzia kenduta, noski, hori ezabatu gabe.


Duela gutxi desagertu den EGA da ikuspegi formal-gramatikal horrek izan duen gehiegizko pisuaren adibide ona. Horrek badu bere garrantzia; izan ere, esan dugun bezala, ikuspegi horren protagonismoak frustrazio handia sortu du euskaraz primeran hitz egiteko gai diren pertsonengan.

Lanpostuan bertan, jardunaren bitartez hizkuntza-gaitasuna aitortzeko mekanismoak ezartzea ere beharrezkoa da. Badago egunerokoan komunikazio-trebetasunak erakusteko aukera, adibidez, arreta euskaraz ematean. Kanadan, gurea baino zailagoa den testuinguru batean, eredu hau ezarri dute. Han kontrako bi hizkuntza komunitateren arteko talka dagoela esan genezake, askok ez dakitelako besteen hizkuntza. Elebitasuna modu erreal eta zehatzean existitzen ez den espazio batean aplikatzen ari dira eredu hau.


Euskarazko jardun profesionala eskatutako gaitasunarekin lotuta dagoen egiaztatzeaz ari gara, eta hori beharrezkoa da, lehen aipatu dugun frustrazio horri aurre egiten laguntzeko. Komunikazio ikuspuntu batetik, hizkuntzan moldatu bai baina gramatika karga handia duen azterketa gainditu ezin duen horren frustrazioa. Zalantzarik gabe, behar-beharrezkoa da hori euskaltegietakoa etengabeko ebaluazioari lotuta egotea, eredu hori dagoeneko prestakuntza-programa askotan praktikatzen da.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK: BELARRIPREST FIGURA AINTZAT HARTZEKO ALDAKETAK BEHAR DITUEN SISTEMA

Hizkuntza-eskakizunen sistema beharrezko tresna da gure hizkuntza-aniztasunari arreta egokia eman ahal izateko; halaber, beharrezkoa da enplegu publikoan eskakizun jakin baten egiaztapena ezartzea. Baina



hermès



hermes

zehaztugabetasunak saihestu behar ditugu, unean uneko administrazio publikoak zeharkako adostasunetatik urruntzen diren erabakiak hartu ez ditzan, zehaztugabetasun horiek ateak ireki baitizkiete, gure ikuspuntutik, behintzat, euskara bultzatzen laguntzen ez duten arbitrariotasunei.

Gure ustez, Euskadin bi hizkuntza ofizial ditugunez, beharrezkoa da horien ezagutza eta erabilera errealitate soziolinguistikoarekin bat datozen proportzio eta bideetan egiaztatzea. Horregatik, hizkuntza-eskakizunen sistemak helburu jakin batzuetan oinarritu behar du:

- Administrazioan arreta elebiduna bermatzea.
- Euskararen erabileraren mailakako garapena bermatzea.
- Sektore publikoan, euskaraz ez dakiten edo, hizkuntza ezagutu eta ondo moldatzen diren arren, euskara egiaztatu ezin izan duten langileen lan-aukerei eustea.

Gure ustetan, enplegu publikorako sarbidean, irtenbidea ez da lanpostu jakin batzuetan hizkuntza-eskakizuna bereizketarik gabe igotzea, hori ez baita-tor bat Euskadiko errealitate soziolinguistikoarekin. Hori gizartetik urrun dagoen administrazio publiko bat eraikitzea litzateke.

Planteamendu horren muturreko adierazpenak ere badaude, hizkuntza-eskakizunak iraungitzea eta azterketa berriro egin behar izatea defendatzen dutenak, esaterako, eta administrazio osoan eskatzen den gutxieneko maila B2 izatea, maila horretatik beherako gaitasuna egiaztatzen duenari ezikusia-rena eginez.

Ez dugu irtenbidetzat jotzen, ezta ere, hizkuntza-eskakizunak, bereizketarik egin gabe, lanpostu guztietara zabaltzea. Neurri horiek ez datoz bat Euskadiko errealitate soziolinguistikoarekin, eta bere gizartetik urrun dagoen administrazio publiko bat sortzen laguntzen dute.

Kontuan hartu behar dugu hizkuntza-eskakizunen sistematik at ere badagoela egiaztatu daitekeen euskara ezagutzarik. Euskara eguneroko bizitzara ekartzeko helburua duen *Euskaraldia* ekimenak erakutsi digu euskara hain era egokian hitz egiten ez duten horien ahalegina eta jarrera nola balioetsi, *belarri-prest* figurarekin.

Geure buruari galdegingo bagenio zer nolako aukera uzten dien egungo hizkuntza eskakizunen sistemak belarriprest diren pertsonen, erantzuna erraz botako genuke: bat ere ez edo ia bat ere ez, enplegu publikorako sarbideari dagokionez, behintzat. Gaur egungo sistemak ia ez dio aintzatespenik ematen B1 maila arte egindako ikaskuntzari. CCOOn, uste dugu egiaztatutako euskararen ezagutza baloratu beharra dagoela administrazio publikoan lan egiteko, baina gaur egungo eskakizunak baino maila txikiagotik hasita.

Belarriprest pertsonen eta enplegu publikorako sarbidean, B1 baino beheragoko eskakizunen aintzatespena, hizkuntza baten ezagutza hutsetik abiatzen den edonori zuzenean mesede egingo dioten neurriak dira, askotan, etorkinei. Argi eta garbi ezagutza egiaztatzeak mailakatua izan behar du, gure gizartera iritsi berri den inork ez du egiaztatuko B2 mailarik hasieratik.

Administrazio publikoaren helburuak euskaraz artatua izan nahi duen pertsona ororen nahia bermatzea izan behar du. Baina, administrazio publikoko langile guztiek eskatzen den mailan euskaraz jakin behar izatea, kasu batzuetan, beste garai batean lortutako adostasunen aurkakoa da. Lehenengo baldintzak ez du, berez, bigarrena guztiz beharrezko bihurtzen.

Puntu honetara iritsita eta jarraibide batzuk azalduta, eskakizunen sistemaren arbitrariotasunak azter ditzakegu, lehen aipatu dugunaren ildoan. Administrazio publikoan, hizkuntza-eskakizuna berehala eskatzekoak diren lanpostuak zein diren ezartzeko, egungo sistema Eustatetik datozen datuetan oinarritzen da. Sistema horren arabera, hizkuntza-eskakizunen beharrak kalkul-indize baten bidez egiten dira, eta indize horretan sartzen dira euskara dakitenen eta euskara ulertzen dutela diotenak (edo, bestela esanda, euskaldun pasiboak) erdiaren batura.

Kalkulu-sistema horrek ez du, benetan, herritarrek herri-administrazioari euskaraz erantzuteko egiten dioten eskaria neurtzen, ez baita sartzen erabilera errealean aldagaia. Beharbada, laurogeiko hamarkadan zentzua zuen sistema horrek, baina gaur egungo administrazio digitalarekin, justifikaziorik ez duen sistema da, benetako eskaria neurtzeko ahalmena badagoenean, eta horretarako mekanismoak ezarri direnean, baita telefono bidezko arretaren aurretiko behaketarekin ere, euskaraz edo gaztelaniaz artatzeko nahia galdetzen baita.

Uste dugu espazio jakin batzuetan sortu diren arazoak sistema hori ez errespetatzearen ondorio izan direla. Gehiegitan, ateratzen den kopurua, indarrean dagoen araudiaren arabera “nahitaez bete beharreko indize” gisa hartzen da, hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen eskakizunari dagokionez, udal eta aldundi jakin batzuek gutxienezkotzat interpretatzen dute. Hori horrela, administrazio horiek % 100ean jartzen dute berehala eskatzeko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostu kopurua.


Adostasunean oinarritutako hizkuntza-politika nahi dugu, eta arbitrariotasun horiek ez ditugu onartuko. Eta ez dugu onartuko bi norabideetako bakar batean ere: eskaera errealearekin alderatuta, ez lanpostu kopurua gehiegi handitzen denean, ez eta lanpostu kopurua murriztean ere.

Hizkuntza egiaztatzean eta enplegu publikorako sarbidean ere bai, hizkuntza-gaitasun guztiak eta ikaskuntza-maila guztiak baloratzea beharrezkoa da: A1 eta A2 mailak eta ulermen gaitasuna hizkuntza-eskakizunen sisteman aintzat hartu behar dira; izan ere, beharrezkoa da euskararen ikaskuntzara hurbiltzen diren guztiek (belarriprest) egiten duten ahalegina eta jarrera ere balioestea.

Neurri horrek hainbat kolektibori egingo die mesede, tartean, zalantzarik gabe, etorkinei. Norbait A1 eta A2 mailetan euskararen ezagutza egiaztatzen hasiko bada, zalantzarik gabe, hizkuntza horretara lehen aldiz sartuko diren pertsonak izango dira.

Bestalde, hizkuntza eskakizuna baldintza gisa duten lanpostuak ezartzeko kalkulu modu berri bat ezarri behar da. Kontuan hartu beharreko bi faktore daude: hizkuntza bakoitzeko zerbitzuen benetako eskaria eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten langileen ehunekoa; izan ere, gaur egun badira eskaera hori kuantifikatzeko aukera ematen duten baliabide teknikoak.

Beraz, eskaera hori zenbatekoa den eta administrazio publiko bakoitzaren baliabideak ezagutu beharko genituzke, eta horiek neurtzeko behar diren neurriak ezarri. CCOOren proposamenaren arabera, hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen “nahitaez bete beharreko indizea” benetako eskaeraren gainetik jarri behar da, ehuneko 10 puntu baino gehiagotan. Nolanahi ere, funtsezkoa da adostutako politika bati eusteko, araudian “nahitaez bete beharreko indize” gisa adierazitakoak errespetatzea (+/- % 2ko tartearekin), ez daitezela “gutxienezko betetze-indizeetara” aldatu eta ondorioz administrazio jakin batzuetan gertatu diren tirabirak sortu.



hermes



hermes



Beste alde batetik, kontuan izan behar dugu, gaur egun, badirela lanpostu jakin batzuetako zereginak betetzeko beharrezkoak ez diren eskakizunak. Lanpostuak eskatzen dituen ahozko eta idatzizko trebetasunak bereizi behar ditugu, kasu batzuetan, ahozko maila eta idatzizko maila bereizten dituzten hizkuntza-eskakizun mistoak osatzeraino. Lanpostuan moldatzeko, hirugarren adineko egoitza batean gerokultore gisa edo eskola-jantoki batean begirale gisa lan egiten duten pertsonak ahozko euskara-maila handia behar dute, baina ez hainbestekoa idatzizko mailan, ez baitute eguneroko lana egiteko behar, beraz, ez du zentzurik bere maila egiaztatzeko idazkera konplexuagoa duen mailako eskakizuna ezartzea. Hori dela eta, beharrezkoa da lanpostu bakoitzaren komunikazio-erabilerak zehatz-mehatz zehaztea, eta egungo egiaztapen-sistema zurruna egokitzeko erreforma egitea.

Gure ustez, proposamen multzo horrek, berariaz migratzaileentzat pentsatuta ez badago ere, euskarara hurbiltzen eta murgiltzen lagunduko die, euskara ikasi eta egiaztatzeko justifikaziorik gabeko zailtasun hauek alboratuz, horrela, euskal gizartean bizikidetza eleaniztun eta kohesionatua lortzen lagunduta.